



Ayuntamiento de OYÓN-OION
OYÓN-OIONgo Udala

UDALAREN OSOKO BILKURA Bileraren akta

2023ko irailaren 13ko, asteazkeneko, bilkuran, akta onetsi zenean, egin ziren oharrak biltzen ditu.

2023 – 2027 agintaldiko Udalbatza eratzeko saioa.

Data: 2023ko ekainaren 17a, larunbata.

Ordua: 12:00 (hamabiak).

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, Estatuko hauteskundearen araubide orokorrari buruzko Lege Organikoaren 195.1 artikuluan eta Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 37. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira, honako hauek deitu dira: Unai Bengoechea Múgica, Eva María Frías Del Val, Eduardo Inclán Gil, Oscar Layana Rio, Leire Martínez Flores, Sergio Rozas Núñez, Leire Saenz Verano, Jose Antonio Tarragona Elejalde, Rosa Vázquez Iglesias, Jose Manuel Villanueva Gutiérrez eta Kontxi Villanueva Gutiérrez. Vitoria-Gasteizko Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen jakinarazpen-aktarekin bat etorrira deitu dira. Agiri hori idazkaritzara bidali zen. 2023 – 2027 agintaldi korporatiborako Oyón-Oiongo Udalaren Osoko Bilkura eratzeko saioa egiteko bildu dira.

Ordainketen araubidea ezarri ez denez, saio honetara etortzeak ez du ordainketarik jasotzeko eskubiderik sortuko.

Saioa jarduneko alkate-udalburuak deitu du, Jose Eduardo Terroba Cabezónnek, arauak ezarritako aurretiaz eta publizitatea eginda, eta honako honen arabera:

Gai-zerrenda

1. Vitoria-Gasteizko Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen akta, zinegotzi hautetsiak jakinarazten dituenak.
2. Adin-mahaia eratzzea.
3. Egiagutunak egiaztatzea eta zinegotzien interesen eta ondarearen adierazpenen berri ematea.
4. Zinegotziek kargua hartzea eta Udalbatzaren eraketa adieraztea 2023tik 2027ra bitarteko agintaldirako.
5. Alkatea aukeratzea.
6. Hautetsiak alkate-kargua hartzea.

Bilkuraren izaerarekin eta gai-zerrendarekin bat etorriz, eta gaiak joratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira. Saioa grabatu egin da, 2023ko apirilaren 20ko saioan hartutako erabakia gauzatuz.

1. Vitoria-Gasteizko Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen akta, zinegotzi hautetsiak jakinarazten dituenak.

Kargua utziko duen alkateak agindua eman ondoren, idazkariak Vitoria-Gasteizko Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen 2023ko ekainaren 7ko akta irakurri du partzialki, 2023ko hauteskundeetako Oyón-Oiongo hautetsiak jakinarazten dituenak. Honako atal hauek irakurri dira:

Udalaren osoko bilkura, 17. bilkura-akta – VI- 2023



Ayuntamiento de OYÓN-OION
OYÓN-OYONgo Udala

- Eusko Alderdi Jeltzalea – Partido Nacionalista Vasco, 378 boto.
- Euskal Herria Bildu, 504 boto.
- Partido Socialista de Euskadi - Euskadiko Ezkerra (PSOE), 192 boto.
- Partido Popular, 255 boto.

Taula horretan islatutako hauteskundeetako emaitzen arabera, honako hauek izendatu dira hautetsi (parentesi artean adierazi da hautagaitza):

1. Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu)
2. Leire Martínez Flores (EH Bildu)
3. Eva María Frías Del Val (EH Bildu)
4. Leire Saenz Verano (EH Bildu)
5. Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu)
6. Jose Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV)
7. Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV)
8. Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV)
9. Eduardo Inclán Gil (PP)
10. Rosa Vázquez Iglesias (PP)
11. Oscar Layana Rio (PSE-EE (PSOE))

2. Adin Mahaia eratzea.

Idazkari jaunak jakinarazi du, Hauteskundeen araubide orokorrari buruzko Lege Organikoaren 195.2 artikuluan eta Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 37.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira, Adin Mahaia eratu behar dela. Mahai hori bilkuran dagoen hautetsi nagusienak eta gazteenak osatuko dute, eta idazkaria Udalbatzako idazkaria izango da.

Mahaiaren eginkizunak hauek dira: zinegotzien egiaztgutunak egiaztatzea, interesen eta ondarearen aitortpenak aurkeztu direla egiaztatzea, hautetsiei zina edo hitza hartzea eta bilkurako buru izatea alkate hautetsiak kargua hartu arte.

Alkate jauna: Idazkaritzan dauden datuen arabera, zinegotzi nagusiena Jose Antonio Tarragona Elejalde da, eta zinegotzi gazteena, berriz, Leire Sáenz Verano. Kargua utziko duen alkateak Jose Antonio Tarragona Elejalde eta Leire Sáenz Verano zinegotzi hautetsiak deitu ditu Adin Mahaia eratzera.

Kargua utziko duen alkate jauna: Saioaren presidentetza Adin Mahaiari lagatzen diot.

Kargua utzi duen alkateak mahaia utzi du eta bilkura-aretoan jarraitu du, kargua hartu ondoren alkate hautatuari makila emateko.

3. Egiaztgutunak egiaztatzea eta zinegotzien interesen eta ondarearen adierazpenen berri ematea.

Idazkari jaunak jakinarazi du Hauteskunde Batzordeak hautatutako zinegotzien egiaztgutunak badaudela, ondare-aitortpenak aurkeztu dituztela eta, horregatik, karguak hartzeko moduan daudela.

Hauteskunde Batzordeak karguak hartu dituzten zinegotzi hautetsien alde emandako egiaztgutunak ondare- eta interes-aitortpenen erregistroan artxibatuko dira.

Udalaren osoko bilkura, 17. bilkura-akta – VI- 2023



Leire Sáenz Verano, zinegotzi hautetsi gazteena, Adin Mahaitik altxatu eta kargua hartu du atrilean, formula honen arabera: «Oiongo zinegotzi-karguaz jabetzen naiz, eta hitz ematen dut Oiongo herritarren interesak babestuko ditudala, haiek aukeratu bainaute. Horrez gain, zinegotzi-karguaren betebeharrak beteko ditudala agintzen dut, eta, legeak hala aginduta, ontzat hartzen dut Espainiako Konstituzioa eta Euskal Herriaren Errepublikaren aldarrikatzea eta guzti.» Eta gaztelaniaz: «Tomo posesión del cargo de concejala de Oyón. Y prometo velar por los intereses de las vecinas y los vecinos de Oyón por cuya voluntad he sido electo y cumplir con las obligaciones del cargo de concejal y por imperativo legal acatar la Constitución Española y hasta la proclamación de la República de Euskal Herria».

Jose Antonio Tarragona Elejalde, zinegotzi hautetsi nagusia, Adin Mahaitik altxatu eta kargua hartu du atrilean, formula honen arabera: «Tomo posesión del cargo de concejal de Oyón. Y prometo velar por los intereses de las vecinas y los vecinos de Oyón por cuya voluntad he sido electo y cumplir con las obligaciones del cargo de concejal y acatar la Constitución Española». Eta euskaraz: «Oiongo zinegotzi-karguaz jabetzen naiz, eta hitz ematen dut Oiongo herritarren interesak babestuko ditudala, haiek aukeratu bainaute. Horrez gain, zinegotzi-karguaren betebeharrak beteko ditudala agintzen dut, eta ontzat hartzen dut Espainiako Konstituzioa».

Une horretatik aurrera, zinegotzi hautetsi gazteenak hautetsien lehenengo abizenaren alfabeto-hurrenkeraz deitu ditu kargua hartzeko, ordena honetan:

1. Unai Bengoechea Múgica.
2. Eva María Frías Del Val.
3. Eduardo Inclán Gil.
4. Oscar Layana Rio.
5. Leire Martínez Flores.
6. Sergio Rozas Núñez.
7. Rosa Vázquez Iglesias.
8. Jose Manuel Villanueva Gutiérrez.
9. Kontxi Villanueva Gutiérrez.

Unai Bengoechea Múgica karguaz honako formula honen bidez jabetu da: «Oiongo zinegotzi-karguaz jabetzen naiz, eta hitz ematen dut Oiongo herritarren interesak babestuko ditudala, haiek aukeratu bainaute. Horrez gain, zinegotzi-karguaren betebeharrak beteko ditudala agintzen dut, eta, legeak hala aginduta, ontzat hartzen dut Espainiako Konstituzioa eta Euskal Herriaren Errepublikaren aldarrikatzea eta guzti.» Eta gaztelaniaz: «Tomo posesión del cargo de concejal de Oyón. Y prometo velar por los intereses de las vecinas y los vecinos de Oyón por cuya voluntad he sido electo y cumplir con las obligaciones del cargo de concejal y por imperativo legal acatar la Constitución Española y hasta la proclamación de la República de Euskal Herria».

Eva María Frías Del Val karguaz honako formula honen bidez jabetu da: «Oiongo zinegotzi-karguaz jabetzen naiz, eta hitz ematen dut Oiongo herritarren interesak babestuko ditudala, haiek aukeratu bainaute. Horrez gain, zinegotzi-karguaren betebeharrak beteko ditudala agintzen dut, eta, legeak hala aginduta, ontzat hartzen dut Espainiako Konstituzioa eta Euskal Herriaren Errepublikaren aldarrikatzea eta guzti.» Eta gaztelaniaz: «Tomo posesión del cargo de concejala de Oyón. Y prometo velar por los intereses de las



Ayuntamiento de OYÓN-OION
OYÓN-OYONgo Udala

vecinas y los vecinos de Oyón por cuya voluntad he sido electo y cumplir con las obligaciones del cargo de concejal y por imperativo legal acatar la Constitución Española y hasta la proclamación de la República de Euskal Herria».

Eduardo Inclán Gil karguaz honako formula honen bidez jabetu da: «Prometo por mi conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de concejal del Ayuntamiento de Oyón con lealtad al Rey y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado». Eta euskaraz: «Nire kontzientzia eta ohoreagatik zin egiten dut (promes egiten dut) Oiongo Udaleko zinegotziaren karguari dagozkion betebeharrak leialki beteko ditudala, erregearenganako leialtasunez, eta Estatuko oinarrizko araua den Konstituzioa gorde eta gordearaziko dudala».

Oscar Layana Rio karguaz honako formula honen bidez jabetu da: «Nire kontzientzia eta ohoreagatik zin egiten dut (promes egiten dut) Oiongo Udaleko zinegotziaren karguari dagozkion betebeharrak leialki beteko ditudala, erregearenganako leialtasunez, eta Estatuko oinarrizko araua den Konstituzioa gorde eta gordearaziko dudala». Eta gaztelaniaz: «Prometo por mi conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de concejal del Ayuntamiento de Oyón con lealtad al Rey y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado».

Leire Martínez Flores karguaz honako formula honen bidez jabetu da: «Oiongo zinegotzi-karguaz jabetzen naiz, eta hitz ematen dut Oiongo herritarren interesak babestuko ditudala, haiek aukeratu bainaute. Horrez gain, zinegotzi-karguaren betebeharrak beteko ditudala agintzen dut, eta, legeak hala aginduta, ontzat hartzen dut Espainiako Konstituzioa eta Euskal Herriaren Errepublikaren aldarrikatzea eta guzti.» Eta gaztelaniaz: «Tomo posesión del cargo de concejala de Oyón. Y prometo velar por los intereses de las vecinas y los vecinos de Oyón por cuya voluntad he sido electo y cumplir con las obligaciones del cargo de concejal y por imperativo legal acatar la Constitución Española y hasta la proclamación de la República de Euskal Herria».

Sergio Rozas Núñez karguaz honako formula honen bidez jabetu da: «Tomo posesión del cargo de concejal de Oyón. Y prometo velar por los intereses de las vecinas y los vecinos de Oyón por cuya voluntad he sido electo y cumplir con las obligaciones del cargo de concejal y acatar la Constitución Española». Eta euskaraz: «Oiongo zinegotzi-karguaz jabetzen naiz, eta hitz ematen dut Oiongo herritarren interesak babestuko ditudala, haiek aukeratu bainaute. Horrez gain, zinegotzi-karguaren betebeharrak beteko ditudala agintzen dut, eta ontzat hartzen dut Espainiako Konstituzioa».

Rosa Vázquez Iglesias karguaz honako formula honen bidez jabetu da: «Prometo por mi conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de concejal del Ayuntamiento de Oyón con lealtad al Rey y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado».

Jose Manuel Vllanueva Gutiérrez karguaz honako formula honen bidez jabetu da: «Oiongo zinegotzi-karguaz jabetzen naiz, eta hitz ematen dut Oiongo herritarren interesak babestuko ditudala, haiek aukeratu bainaute. Horrez gain, zinegotzi-karguaren betebeharrak beteko ditudala agintzen dut, eta, legeak hala aginduta, ontzat hartzen dut Espainiako Konstituzioa eta Euskal Herriaren Errepublikaren aldarrikatzea eta guzti.» Eta gaztelaniaz:

Udalaren osoko bilkura, 17. bilkura-akta – VI- 2023



Ayuntamiento de OYÓN-OION
OYÓN-OYONgo Udala

«Tomo posesión del cargo de concejal de Oyón. Y prometo velar por los intereses de las vecinas y los vecinos de Oyón por cuya voluntad he sido electo y cumplir con las obligaciones del cargo de concejal y por imperativo legal acatar la Constitución Española y hasta la proclamación de la República de Euskal Herria».

Kontxi Villanueva Gutiérrez karguaz honako formula honen bidez jabetu da: «Tomo posesión del cargo de concejala de Oyón. Y prometo velar por los intereses de las vecinas y los vecinos de Oyón por cuya voluntad he sido electo y cumplir con las obligaciones del cargo de concejal y acatar la Constitución Española». Eta euskaraz: «Oiongo zinegotzi-karguaz jabetzen naiz, eta hitz ematen dut Oiongo herritarren interesak babestuko ditudala, haiek aukeratu binaute. Horrez gain, zinegotzi-karguaren betebeharrak beteko ditudala agintzen dut, eta ontzat hartzen dut Espainiako Konstituzioa».

Adin Mahaiko presidentek, Tarragona jaunak, zinegotzi guztiak karguaz jabetu ondoren, 2023-2027 agintaldirako Udalbatza eratutzat jo du.

4. Alkatea aukeratzea.

Idazkari nagusi jaunak Estatuko hauteskudeen araubide orokorrari buruzko lege organikoaren 196. artikulua irakurri du: "Udalbatza eratzeko bilkura berean alkatea aukeratuko da, honako prozedura honen arabera:

- a) Hautagai izan daitezke dagozkien zerrendetako buru diren zinegotzi guztiak.
- b) Horietako batek zinegotzien botoen gehiengo osoa lortzen badu, hautetsi izendatuko dute.
- c) Horietako batek ere ez badu gehiengo hori lortzen, dagokion udalerrian herritarren boto gehien lortu dituen zerrendako burua izendatuko da alkate".

Idazkari jauna: Oyón-Oionen kasuan gehiengo osoa 6 (sei) da. Herritarren boto gehien lortu dituen zerrenda EH Bildurena izan da 504 botorekin. Alkatea hautatzeko hautagaiak izan daitezke: Jose Manuel Villanueva Gutiérrez, Jose Antonio Tarragona Elejalde, Eduardo Inclán Gil eta Oscar Layana Rio.

Idazkari jaunak hautagaiak galdetu die ea alkate izateko hautagai gisa aurkeztutako diren.

Jose Manuel Villanueva Gutiérrez: Bai.

Jose Antonio Tarragona Elejaldek uko egiteko idatzia irakurri du. Eta transkribatu egiten da: Egun on, buenos días. Lehenik eta behin hautagai gisa aurkezteko nigan konfiantza jarri dutenak eskertu nahi ditut; nire taldekide guztiei gure proiektuarekin bat etortzea onartu izanagatik; eta bozkatu gaituzuen eta erabaki hau babestu duzueni (nire familiari bereziki). 378 boto jaso ditugu eta, hortaz, 3 ordezkari. Baina horiek ez dira nahikoak hurrengo lau urteetarako gobernu egonkor eta jasangarri bat osatzeko. PSOE eta PPko ordezkariak ere eskertu nahi ditut beraien laguntzagatik eta konfiantzagatik... Baina Oyón-Oionek, Oyón-Oiongo herritarrek, beste erabaki bat hartu du. Hori dela eta, nire hautagaitza ez aurkeztea erabaki dut. Denok ezagutzen duzue nire inplikazioa eta ilusioa, eta urte hauetan guztietan, nire onena eman dut egunero Oyón-Oion hobea egiteko. Baina horiek izan dira emaitzak eta kide batek esan bezala, hori da demokraziaren edertasuna eta krudelkeria. Eta gogoeta asko egin eta baloratu ondoren, nire udalerriko alkate izateko hautagaitza aurkezteari uko egitea erabaki dut. Eskerrik asko.

Udalaren osoko bilkura, 17. bilkura-akta – VI- 2023



Eduardo Inclán: EAJko hautagaiaren erabakia, bilkura hasi aurretik jakin duguna, sorpresa izan da. Nire hautagaitza aurkezten dut.

Oscar Layanak hautagai izatea ezeztatu du.

Idazkari jaunak Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 46. artikulua d letra irakurri du: d) Ohiko bozketaz hartzen dira erabakiak, osoko bilkurak, kasu zehatzen baterako, izenezko bozketa bidez egitea erabakitzen ez badu behintzat. Botoa baiezkoa edo ezezkoa izan daiteke, eta korporazioko kideek bozketan abstentzioa aukeratu dezakete.

Eta Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 101. eta 102. artikulua:

"101. artikulua

Bozketak ohikoak, izenezkoak eta ezkutukoak izan daitezke.

Ohikoak dira baiespen-, ezespen- edo abstentzio-zeinu konbentzionalen bidez adierazten direnak.

Izenezkoak dira deituz egiten diren bozketak, abizenen alfabeto-hurrenkeraren arabera, eta, betiere, azkena presidentea izango da, eta korporazioko kide bakoitzak, deitzen diotenean, ozen erantzungo du: "bai", "ez" edo "abstenitu egiten naiz".

Ezkutukoak dira boto-paper bidez korporazioko kide bakoitzak bere botoa hautetsontzi edo poltsa batean utziz egiten denean.

102. artikulua

1. Bozketa egiteko sistema arrunta ohiko bozketa izango da.

2. Izenezko bozketa egiteko udal-talde batek eskaera egin beharko du (gaurko egun ez da udal-talderik eratu), eta osoko bilkurak gehiengo soilaz onartu beharko du ohiko bozketan.

3. Ezkutuko bozketa pertsonak hautatzeko edo kargugabetzeko bakarrik erabiliko da".

Alkatea aukeratzeko sistema bozkatu da.

Ezkutuko bozketaren bidez alkatea aukeratzeko botoak:

Aldeko botoak 8 (zortzi); Jose Manuel Villanueva Gutiérrez, Leire Martínez Flores, Eva María Frías Del Val, Leire Saenz Verano, Unai Bengoechea Múgica, José Antonio Tarragona Elejalde, Kontxi Villanueva Gutiérrez eta Sergio Rozas Núñez.

Abstentzioak: 3 (hiru); Eduardo Inclán Gil, Rosa Vázquez Iglesias eta Oscar Layana Río.

Adostu da:

1) Alkatea ezkutuko bozkaren bidez aukeratuko da.

Aldeko botoak 8 (zortzi); Jose Manuel Villanueva Gutiérrez, Leire Martínez Flores, Eva María Frías Del Val, Leire Saenz Verano, Unai Bengoechea Múgica, José Antonio Tarragona Elejalde, Kontxi Villanueva Gutiérrez eta Sergio Rozas Núñez.

Abstentzioak: 3 (hiru); Eduardo Inclán Gil, Rosa Vázquez Iglesias eta Oscar Layana Río.

Udalbatzako kide bakoitzak, alfabeto-hurrenkeraren arabera, hautetsontzi batean sartuko duen boto-txartela erabiliko da bozketa egiteko.

Bozketa amaituta, Adin Mahaiko kideek botoak zenbatuko dituzte.

Idazkari jaunak boto-zenbaketa emaitzak eman ditu, honako hauek dira:

Emandako botoak: 11 (hamaika).



Boto zuriak: 4 (lau).

Hautagai-zerrendetarako botoak, honela banatuta:

- Jose Manuel Villanueva Gutiérrez: 5 (bost) boto.
- Eduardo Inclán Gil: 2 (bi) boto.

Ez dago 6 (sei) boto lortu dituen hautagaik, hau da, inork ez du gehiengo osoa lortu; hala, Jose Manuel Villanueva Gutiérrez, EH Bilduko zerrendaburua, Oyón-Oiongo herritarren botoen gehiengo lortu duen zerrendaburua, alkate izendatuko da.

Tarragona Elejalde jauna: Manuel Villanueva Gutiérrez jauna Oyón-Oiongo alkate izendatu da.

Kargua uzten duen alkate jaunak makila eman dio. Momentu honetatik aurrera, bilkuraren burua da.

5. Hautetsiak alkate-kargua hartzea

Villanueva Gutiérrez jaunak, zinegotzi-kargua hartu duten atriletik, hitza hartu du eta honako hau esan du: Eskerrak eman nahi dizkiet boto-emaileei beren laguntzagatik. Eskerrik asko bozkatu gaituzuen guztioi. Ideia guztietara irekita dagoen gobernu bat izango gara, herritarrentzako onak direla uste badugu ez dugu begiratuko nondik datorren, ez dugu siglarik begiratuko. Gure helburua herria, herria, herria da eta herritarren bizitza hobetzea, zerbitzu hobegoak eskaintzea. Aldaketa politiko bat biziko dugula aurreratzen dizuet, biztanleriaren bizitza hobetuko duena. Konfiantza dut horretan, talde zoragarri bat baitut.

Villanueva Gutiérrez jaunak zerrendaburuak izan diren zinegotziei eman die hitza.

Layana Río jauna: Alderdi sozialista lankidetzan aritzeko eta herriari mesede egiten dion guztiari laguntzeko prest dago. Legegintzaldi honetan Barriobusto eta Labraza gehiago kontuan hartzea espero dut. Edozein proposamen baloratzeko eta herriari mesede egiten dion guztia babesteko prest gaude. Zorionak.

Inclán Gil jauna: Proposatzen diguzuenari adi egongo gara eta egiten dena begiratuko dugu. Herriarentzako onuragarria denaren alde egingo dugu. Egonkortasunaren eta bake soziala kaltetzen duenaren aurka egongo gara. Gobernu-taldeak proposatzen duenari adi egongo gara, gure biztanle guztientzako etorkizun hobego baten alde lan egingo dugu. Ziur eztabaidatuko dugula, baina guk herriari on egingo dionaren alde lan egin eta babestuko dugu.

Tarragona Elejalde jauna: Hemen gaude eta herriarentzako lan egiteko sartu gara, gobernu-taldeak egiten duena jarraituko dugu, lanean jarraituko dugu eta oposizioa izango gara. Zorionak.

Villanueva Gutiérrez: balkoira irtengo gara jendea agurtzera. Beste taldeetako kideak agurtzera ateratzea gonbidatzen ditut, abaguneak merezi duela uste dut. Hemen gertatu denarekiko errespetu osoa eskatu nahi dut herriak nahi izan duena baita. Eskerrik asko eta, astelehenean, lanera.



Ayuntamiento de OYÓN-OION
OYÓN-OYONgo Udala

Jorrazeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburuak amaitutzat eman du bilkura 12:29an (saioa CCXXXI urteko, Belardunaren hogeita zortzigarreneko, hirugarren hamarkadako zortzigarren eguneko hamabietan hasi da), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2023ko ekainaren 30ean.
Udaleko idazkaria:

O. E. Alkatetza.

Udalaren osoko bilkura, 17. bilkura-akta – VI- 2023



Ayuntamiento de OYÓN-OION
OYÓN-OYONgo Udala

Hiri-antolamenduko plan orokorraren 11. barruko aldaketa. Esposizio publikoa

Oyón-Oiongo Udalak Oyón-Oiongo hiri-antolamenduko plan orokorraren 11. barruko aldaketa (egiturazkoa) onetsi du hasiera batean. Antolamendu xehatuko eremua: oinarrizko azpiegituren eta hondakin solidoak (H.4), ez-arriskutsuak eta geldoak ezabatzeko azpiegituren eremua lurzoru urbanizaezinean, kategoria definitu gabea. Sustatzailea: Ecoreinares SL.

Hasierako onespenak automatikoki eteten ditu lursailen partzelaziorako, eraikuntzarako eta eraispenetarako lizentziak, barruko aldaketaren eremuan. Lizentziak gehienez ere 2 (bi) urtez etengo dira, eta barruko aldaketa hori behin betiko onartzen denean iraungiko dira.

Jendaurrean jarri da aldaketa osatzen duen dokumentazioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera. Sektoreko eskumenak dituzten administrazio publikoei eta udalerriko administrazio-batzarrei jakinarazten zaie, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten. Eragindako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin zaie.

Jendaurrean jartzea: epea 45 (berrogeita bost) egunekoa izango da iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita. Administrazio-espeditentea jendaurrean egongo da Oyón-Oiongo Udalaren bulegoetan. Espeditentearen dokumentazio teknikoa esteka honetan dago eskuragarri: www.vitoria-gasteiz.org/mpgou-ciudaddeportivaibaia.

Jendaurrean jartzeko aldian, beren burua ukitutzat dutenek egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Aldaketaren azalpen-saio publikorako deialdia egin da. Bilera hori 2024ko apirilaren 5ean egingo da, Bazterra aretoan (Sortzez plaza), 11:00etan. Bo240313F

Udalaren osoko bilkura, 17. bilkura-akta – VI- 2023